

## LEGE OHARPENA

Informazio eta Merkataritza Elektronikorako Elkartearen Zerbitzuen (LSSI) uztailaren 11ko 34/200 Legearen 10. Artikulua betez, datu hauek aurkezten dira ondoren:

San Juan 42, 48550 Muskiz, kalea da San Juan Ikastetxearen helbidea; R4800608D da bere IFKa eta 014778 zenbakiarekin dago inskribaturik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean.

Interneteko orrialde honen titularra San Juan Bautista Ikastetxea da eta bere [www.sanjuanikastetxea.net](http://www.sanjuanikastetxea.net) orrialdeak Ikastetxearen eta garatzen dituen jardueren berri ematen du.

Dagoeneko Ikastetxean izena emanda duten ikasleen familiei nahiz egiteko asmoa duten familia berriei informazioa eskaintzeko prestatu izan dira web orrialde honetako edukiak.

## PRIBATUTASUN POLITIKA

Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoan agindutakoa betez, eman diezazkigun datu guztiak San Juan Ikastetxearen ardurapean sortu eta gordetako fitxategian sartuko direla jakinarazten zaio erabiltzaileari.

Beti errespetatuko da bere datu pertsonalen konfidentziasuna eta delako datu horiek eskainitako hezkuntza zerbitzuak kudeatzeko, aurkezten dizkigun eskaerei erantzuteko, zeregin administratiboak egiteko eta bide arruntetik edo elektronikotik gure jardueren eta hezkuntza eskaintzaren informazioa bidaltzeko baizik ez dira erabiliko.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko, mugitzeko edo datu-prozesamenduaren aurka egiteko duen eskubidea gauzatzeko, idatziz jo beharko du San Juan Ikastetxera, San Juan 42 Kalea, 48550 Muskiz helbidera edo mezua bidali [secretaria@sanjuanikastetxea.net](mailto:secretaria@sanjuanikastetxea.net) (Datuen Babeserako Arduradunaren arretarako).

## ERABILERA-ARAUAK

Web leku honen sarbide eta erabilera indarrean den legaltasunaren eta onustearen printzipioaren arabera zuzentzen dira, erabiltzaileak web orrialdearen erabilera zuzena egiteko konpromisoa hartzen duelarik. Ez da legearen eta hirugarren batzuen eskubide edo interesen aurka doan portaerarik onartzen. [www.sanjuanikastetxea.net](http://www.sanjuanikastetxea.net) orrialdearen erabiltzaile izateko ezinbestekoa da baldintza hauek eta arlo honetan ezar daitekeen lege-araudia irakurtzea eta onartzea. Era bateko edo besteko arrazoiren batengatik baldintza hauekin bat ez bazatoz, ez jarraitu web hau erabiltzen.

## ERANTZUKIZUNAK

San Juan Ikastetxea ez da mailegatzaileren web orrialdean hirugarren batzuei edukiak aske argitaratzeko baimena ematen dien eztabaida-lekuetan, sare sozialetan edo beste edozein bitartekotan gordetako informazioaren eta edukien erantzulea. Hala ere, LSSI delakoaren 11. eta 16. Artikuluak kontuan hartuta, San Juan Ikastetxeak legerian, hirugarren batzuen eskubideetan edo

moral eta ordena publikoan eragina izan edo urratu dezaketen edukiak kentzeko edo dagokionean blokeatzeko konpromisoa hartzen du.

Internautaren ordenagailuan jarritako softwarearen akats edo konfigurazio txarreatatik gertatzen diren kalte-galeren erantzulea ere ez da. Erabiltzailea internetera konektatzen denean gerta daitekeen gorabehera tekniko edo akatsengatiko erantzukizun oro baztertzeko da. Era berean, web orrialdera sartzerakoan, ez da eten edo akatsik ez egotea ziurtatzen.

Halaber, San Juan Ikastetxeak beretzat gordetzen dau bere web orrialdean jasotako informazioa gaurkotzeko, aldatzeko edo kentzeko eskubidea eta bere konfigurazio edo aurkezpena, edozein unetan hori dela-eta inongo erantzukizunik hartu gabe.

## JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALA

San Juan Ikastetxea da jasotzen diren edukiei dagokien jabetza industrial eta intelektualaren eskubideen titularra, Ikastetxe honen jabetza ez diren izaera publikoko produktu eta zerbitzuen gaineko eskubideena ez ezik. Ezingo da web honetan argitaratutako materialik erreproduzitu, kopiatu edo argitaratu San Juan Ikastetxearen idatzizko baimen zehatzik gabe. Webean jaso dadin informazio guztia, esate baterako, komentarioak, iradokizunak edo ideiak, San Juan Ikastetxeari doan emandakotzat hartuko da. Ez da honela prozesatu ezin daitekeen informaziorik bidali behar.

## COOKIEEN POLITIKA

Web orrialde honek “*cookieak*” erabiltzen ditu, hau da, zure ordenagailuan kokatutako testu-artxiboak, website delakoari erabiltzaileek web lekua nola erabiltzen duten aztertzen laguntzeko. “*Cookie*” horrek inoiz ez digu zuri buruzko informazio pertsonalik ematen. Estatistika-informazioa jasotzeko baizik ez ditugu erabiliko ‘*cookieak*’.

Erabiltzaileak nabigatzailea konfiguratu eta artxibo hauen instalazioa galarazteko aukera du, baina kasu horretan baliteke web leku honek eskaintzen dituen funtzionaltasun guztiak erabiltzeko aukerarik ez izatea.

“*Cookieak*” erabiliz, weba dagoen zerbitzariak erabiltzaileak darabilen web nabigatzailea antzeman dezake, nabigazioa errazago bihurtzeko helburuarekin. Audentzia eta trafikoaren parametroak neurtzeko ere erabiltzen dira, prozesua eta sarreren kopurua kontrolatzeko.

Erabiltzaileak bere nabigatzailea konfiguratzeko aukera du “*cookieen*” hartzearen abisua jasotzeko eta bere ekipoan instalatzea galarazteko. Mesedez, kontsultatu zure nabigatzailearen jarraibide eta eskuliburuak gehiago jakiteko.

## LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Honako baldintza orokor hauek datu pertsonalen babeserako araudiaren inguruan indarrean den legeriak zuzentzen ditu uneoro.

Web lekuari edo bertan garatzen den jarduerari lotuta sor daitekeen edozein auzitarako, eskumenekoak dira Bilboko Epaitegiak erabiltzaileak beren-beregi uko egingo diolarik dagokion beste edozein eskumeni.